

Donostian, 2018 ekainaren 1ean

## ONDARE ERAIKIA BABESTEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETAREN INGURUMEN EBALUAZIOARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Irabazi Donostia Udal Taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 98. artikulua babesean, Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren aldaketaren ingurumen ebaluazioari buruzko MOZIO hau aurkezten du UDALBATZAN EZTABAIDATUA IZAN DADIN.

### JUSTIFIKAZIOA

Halako eztabaidak eragin dituzten hainbat eraispen egin eta gero (Torregrosa Etxea, Kanimar, Txomin, Mirakruz 19, ...), hilabeteotan hazi egin da donostiarrek ondare eraikiaren aurrean duten sentsibilitatea. Horren erakusgarri dira Ancora elkarteak arkitektura bienalaren esparruan landutako "Galdu genuen hiria" erakusketara hurbildutako herritar kopuru handiak.

Hori kontuan hartuta, udal Gobernuak, orain urte bete, 2009an katalogatutako elementuak eta 2014an katalogotik kendutakoak aztertzeko txosten bat egitea eskatu zuen. Lan horren emaitza gisa, alegazio eta emendakin prozesu guztiz nahasi baten ostean, Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Aldaketa formulatu zen.

Iragan otsailean, baztertu egin zen Udalbatzarako eguneko aztergai zerrendatik Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren aldaketaren behin betiko onespina. Espedientean Plan Bereziaren Ingurumen Ebaluaziorik ez izatea izan zen gaia baztertzeko arrazoia. Arrazoibide juridikoek adierazten zuten Plan Berezia ingurumen ebaluazioa egin gabe onartuz gero auzitegiek hura baliogabetzeko arrisku handia egon zitekeela errekurtsoren bat aurkeztuta. Plan Berezia onartzeko

tramitearekin 2018ko ekainaren 6ra arte indarrean egongo den eraispenak atzeratzeko agindua eman zen.

Tamalez, ez dugu Ingurumen Ebaluazioari buruzko Eusko jaurlaritzaren albisterik. Hortaz, Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Aldaketaren arabera babestekoak diren eraikin batzuk eraitsiak izateko eskaeraren xede izateko, eta, beraz, betiko galtzeko, benetako arriskua dago.

Premiazkoa da Ingurumen Ebaluazioa lortzea proposatutako Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Aldaketa behin betiko onartu ahal izateko. Horregatik guztiagatik, honako mozio hau aurkezten du Irabazi Donostia Udal Taldeak:

### MOZIO ARRUNTA

1. Kontuan izanik balio handiko eraikin batzuk babesik gabe daudela eta eraitsiak izateko arriskuan daudela, Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta lasterren amaitu dezala Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Aldaketaren Ingurumen Ebaluazioa.

Stua: Loïc Alejandro,  
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia.